


ttüpi-ttapa

1996ko abuztuak 1 • 187. zenbakia

OSASUN LARRIALDIAK

**Sobera mantso eta
joan-eterri gehiegi**



**Bautista IRAZOKI
LEITZAKO ASKETA
ABESBATZAREN ZUZENDARIA**



Argazkia: GOIKO

Berako Udalak
besta onak
opa dizkizue
Beratar eta
bisitari guziei



*Denon artean
denona dena
Gora Leitzeko Pestak*

**“Justizia, askatasuna eta pakea
Leitzari
eta Euskal Herriari”**

DATUAK

❖ *Bautista Irazoki beratarra da sortzez eta azken zazpi urteotan Leitzan dago apez.*

❖ *Leitzako Asketa Abesbatzaren zuzendaria da gaur egun, eta lehendik ere, ibili den leku guzietan kantari aritu dela aitortu digu.*

❖ *Uztailaren 25, 26 eta 27an Asketak antolaturik goi-mailako egitaraua egin zuten herriko eta kanpoko kantaririk finenak elkartzuz.*

❖ *Asketa Abesbatzak bi sekzio ditu, bat gazteena eta bestea haurrena.*

Bautista IRAZOKI:

«Nafarroa guzian bakarrik bi gazte-abesbatza gaude federatuak»

NOIZ SORTU ZEN ASKETA ABESBATZA?

Hameka-hamabi urte bederen izanen dira. Haur abesbatza bezala sortu zuen J.J. Aizkor-bek eta hura joan eta gero, pare bat urtez edo ibili ziren zuzendaririk gabe eta etorri nintzeanean ni hartu ninduten zuzendari bezala. Bitartean, boza kanbiatezen zaiela eta, mutilak utzi zuten eta 16-17 urteko neska kuadrila zegoen. Eta martxa berri hortan, bi abesbatza egin genuen; bat gazteena, neska hoiekin eta gerotik juntatu zaizkien mutil gazteek osatzen dutena, eta bestea umeekin. Asketa Nafarroako Abesbatzen Federazioan sartua dago eta hauek dira hor barrena gehien ibiltzen direnak.

ETA HAUEN IDEA IZAN DA JAI ANTOLATZEA?

Bai, halaxe da. Leitzan betidanik izandu dira abeslari onak. *Jeiki* abesbatzakoak, adibidez, maila altu xamarrean ibiliak dira hor barna kantari eta gaur egun abesbatza bezala desagertu baldin badira ere, Pontxito Irurtiaren inguruan, maila oneko kantari sailtxoa biltzen da egun seinatueta elizan kantatzeko. Eta guzi hoiek



elkartzeko idearekin, lehengoak, oraingoak eta heldu diren kantari berriak elkartzeko, jai haundi bat antolatzeara proposatu zuten Asketako gazteek, milioitik gorako aurrekontua duen jai eta oso abesbatz onak ekarriko dituen.

LEITZAKO ZENBAT KAN-

TARI BILDUKO ZARETE?

Herrian kantuan ari diren eta aritu diren guziak kontatuz berrehun eta gehiagoko lista atzeri zaigu. Hoiek denak gonbidatu ditugu nahiz eta gero, bildu, gutxiago bilduko garen.

BESTELA, NOLAKO DINAMIKA ERAMATEN DUZUE URTEAN BARRENA?

Parrokiako koroak pestetan eta egun seinatueta kantatzen du eta Pontxitok tarteka entsaiatzen ditu, egun fijoarik gabe. Asketa Gazteak, astero-astero

bi entsaio fijo egiten ditu eta haurren taldeak beste bi. Gainera, hor barna kontzertu bat eman behar denean, orduan pixkat gehixeago. Kontua da gehien gehienak ikasleak direla eta horrek ere markatzen du erritmoa.

ESAN LITEKE KANTUZALETASUNA SEGURTATUA DAGOELA LEITZAN?

Bai, nahiz eta lehen afaritan eta edozein gauza zela jendea kantari aritzen zen. Halere, hemen jende gaztea dugu eta poztekoa da.

» *«Asketa Gazteak, astero-astero bi entsaio fijo egiten ditu eta haurren taldeak beste bi. Gainera, hor barna kontzertu bat eman behar denean, orduan pixka bat gehixeago»*

TESTUA:

JOXEMANUEL IRIGOIEN

ARGAZKIA:

JOSEBA AZPIROZ

OSASUN LARRIALDIAK SOBERA MANTSO ETA JOAN-ETORRI GEHIEGI

Osasun zerbitzuak, banaz bertze, azken urteetan hobera jo badu ere, larrialdietan ez da hori gertatzen, edo eta ez du neurri berean egin duenik iduri.

Nafarroan egindako antolamenduaren aintzinetik, herrian bertan zegoen medikua berehala etortzeko aukera zen bezala, orain medikua etxeratze bidea luzatu egin da herri askorentzat. Baina ikus dezagun zerbitzuaren zenbait xehetasun.



goizeko 8etatik arratsaldeko 3etara da medikuek nahiz erizainek eskeintzen duten zerbitzu arrunta, astelehenetik ortziralera. Bertze aldetik, arratsaldeko 3etatik goizeko 8ak artekoa, egunero, eta larunbat eta igandee osoa Larrialditako Zerbi-

tzuan sartzen dira. Ordu horietan, hau da, astelehenetik ortziralera arteko egunero 17 ordu horietan, gehi larunbat eta igandee-tan, Larrialdiko telefonora deitu behar duzu, 061era, hain zuzen.

Zuk deitzen duzunean, Iruñetik hartzen dizute eskaera. Handik, berriz, gardia txanda dagokion medikuari igarotzen diote deia. Baliteke zu Osasun Zentru-
ra joateko erratea Iruñetik,

horretarako gauza bazara. Horrela gertatuz gero, Osasun Etxean ikusiko zai-

tu medikuak. Ez bazara Osasun Etxera joateko gai, medikua etxera etorriko



zaizu. Hura etorri eta berak erabakiko du, noski, zer egin, ze botika hartu edo ospitalera joan. Azkeneko hau egin behar balitz, ambulantiaren beharra eta papera ere medikuak erabaki eta beteko du. Dena den, larrialditako orduetan egoera larria denean soilik deitzen ahal duzu, ez bertzela, eta Osasun Zentrora joan ere, egoera larritan bakarrik joan zaitezke. Horrela da Osasun asistentzia eskualde guzietan, Goizueta eta Urdazubi-Zugarramurdi ez gaineko herrietan. Hauetan, Eskualdeko Osasun Etxetik urrun gelditzen direlako, bertan dute 24 orduko mediku eta erizain zerbitzua.

IRUÑERA DEITzea ETA HANGO ERANTZUNA

Iruñera deitu eta, han telefonoa hartzen duenak galde-modu saila egiten ditu: orain eriak sumatzen duenari buruzko xehetasunak, lehen izandako eritasunen berri, hartzen dituen botikak. Batzuetan jendeak nekez ematen ahal dituen esplikazioak eskatzen ditu. Galdera guziak erdaraz egiten dituzte. Horrek jende frankorentzat aunitz zailagoa bihurtzen du esplikatzeari. Baina, zailago edo errazago alde batera utzirik, euskaldunari zor zaion errespeturik ez. Horrelako egoera berezi batean, hain zuzen ere, jendeak ezin erabili bere hizkuntza. Beti Osasun Zentrora joateko gomendatzen dute. Sukarreakin daudenak ere joanarazi dituzte. Horrelako egoeran medikuek etxetik eta ohatzetik ere ez ateratzea agintzen badute ere, larrial-

ditako deietan ez dute horrela jokutzen. Eta lehenik behinpein Eskualdeko Osasun Etxera joateko bultzatzen zaituzte.

MEDIKUAREN ETORRERA

Iruñera deitu eta medikua etxera etorri beharra denean, badirudi gehienetan zuzen eta abudo etortzen dela. Hala ere, kexak ere sumatzen dira, batzuetan. Erakusgai izan daiteke TTIPI-TTAPAREN 184. zenbakian argitaratutako karta. Eta ez mediku-erizainen zabarkeriagatik, seguraski, antolamenduaren akatsengatik. Zera erran nahi baita, Iruñera deitu, hango telefonoa hartzen duenari azalpenak eman, hark hango medikuari deitu eta honi azalpenak errepikatu, horrek Osasun Zentroko medikuari deitu eta, behar bada, honek ere esplikazio gehiago eskatu. Horrek minutu batzuk eramaten ditu. Hori alde batetik. Larrialdiez mediku eta erizain bakarria arduratzen bada, egiten den bezala, herri batera joan den bitartean bertze batetik deituz gero, esperoan egon beharra derrigorrezkoa gertatzen da. Baina egoki da mediku bakar batek bete behar izatea eskualdeko larrialdi guziak? Ez litzateke beti mediku bat prest egotea garrantzatu behar?

ANBULANTZIAK

Medikua etorri eta ospitaleratzea gomendatzen badu, ambulanzia ekarri behar da. Zer erranik ez, hori ere lehenbaitlehen ailegatzea oso inportantea dela. Segurantzaz Sozialak kontratua egin du, bai DYArekin, bai Gurutze Gorriarekin eta gure eskualdean dugun ambulanti-en-




presa batekin ere. Donez- teben, Elizondon, Leitzan eta Lesakan badaude ambulanti-baseak, baina hala ere, noiznahi gertatzen den kontua da hurbilago dagoen ambulanzia ekarri beharrean, urrunago dagoena ekartzen dela. Han eta hemen galde- tu dugu gai honetaz, eta alde guzietan gauza bera erran digute: «*aunitz tan, egiazko desastrea da larrialdietan ambulanti-ekin dagoen mar- tx a*». Ageri denez, ambulanti- en

aferak badu berak bakarrik erreportai osoa egiteko gaia.

ZUZENEAN OSPITALERA?

Hortaz, Iruñera deitu eta ospitalerako bidea hartu orduko, denbora luze samarra joaten ahal da. Ez da, horregatik, harritzekoa Mariak bere kartan erraten duena bururatzea: «*Hurrengoan ez dut Iruñera deituko*». Izan ere, ez da hobe zuzenean ospitalera joatea? Gehienetan ez bada ere, noiz edo noiz bizia galdu edo ez galdu dago jo- koan. ■



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.300 ALE

ARGITARATZAILEA: TTPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-
ien. **Publizitatea:** Miren Kar-
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
ozena, Joxemanuel Irigoien.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzio taldea: Pello Ape-
txea, Juainas Paul, Kristina
pan, Bittori Telletxea.
Erriemaileak: Joseba Azpiroz,
Esteban Arozena, Juana Mari
aizar, Ainhoa Mutuberria, Iban
asi, Txema Aldabe, Pello Etxe-
a, Txema Urroz, Patxi Otxan-
rena, Ixabel Maia, Josune Etxe-
ste, Pablo Mendiburu, Joseba
arabide, Alizia Olaizola, Margari
xenike, Koro Irazoki, Mixel
erendiain, Jacqueline, Elixabet
rria, Garbiñe Maiz, Oskar
operena, Alberto Sansiñena,
ello Apezetxea, Aitor Arozena,
istina Boan.

laboratzaileak: EHNE Nafa-
a, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-
a, Joxe Javier Etxeberria,
antxa Zabala...

primategia: Graficas Ona.
ttipi-ttapa ez du bere gain har-
en derrigorrez, aldizkarian adie-
zitako erranen eta eritzien eran-
ukizunik.

akunde Laguntzaileak: Bera,
itza, Goizueta, Areso, Baztan,
dzubi, Zugarramurdi eta
arako udalak, Bortzirietako
uskara Mankomunitatea,
alerrekako Zerbitzu Mankomu-
ate, Zugarramurdiko Akelarre
karta...

IRAKURLEAK MINTZO

Goizueta eta «Herri arteko» Pilota Txapelketa

Pilotazale guztiek dakiten bezala, uztailaren 13an jokatu zen Labritean Nafarroako «Herri arteko» Pilota txapelketaren finala Goizueta eta «Lizarra» ren artean. Komatxoaren artean hitz batzuk idaztearen arrazoa garbi azalduko da ondoren. Lehen-lehenik esan behar dut nere herriak lau eta huts galtzeak ez nauela bultzatu karta hau idaztera, ez dela amorrazio baten ondorioa, alegia. Goizuetarrok oso pozik gaude finala jokatzearekin soilik, txapelketa hasi zenean inork gutxik espero baitzuen horreraino heltzea. «Interpueblos» txapelketak lehenengo urteetan izan zuen espiritua aldarrikatzea da nire helburua, herriak herrien kontrako lehia alegia, Euskal Herriko gainerako herrialdeetan gertatzen den bezala. Nafarroakoak beste era bateko txapelketa bat dirudi, Leitza eta Goizueta izan ezik klubak baitira parte hartzen dutenak herrien izena bereganatuz. Hor daude esate baterako aurtengo edizioan punta-puntan ibili diren Oberena (besteak beste bi arantzarekin jokatu), Txaruta (Baztan-Malerre-

ka osoko pilotariak) eta finalean gure arerioa izan zen San Miguel (Lizarraldeko 600 pilotari barrenean dituena). Azalazaleko datuak izan arren esanguratsua dira inolako zantzarik gabe, eta harrigarria da 1.000 biztanlerara ailegatzen ez den herri batek, Goizuetak alegia, nola egin diezaiekeen aurre horrelako «potentzia» batzuei. Dena den, inozoak ez gara, eta badakigu Federazioak ez baldin badu aldatzen gaur egun indarrean dagoen norma hau, oso zail egingo zaigula sei txapeleko zerrenda eder hori gizenetzea. Hala ere, utopikoak izateko eskubiderik ez digu inork ukatuko, ezta Nafarroako Pilota Federazioak ere. Beraz, guk

lehengoan jarraituko dugu. Bukatzeko, zorionik beroenak herriko pilotari guztiei, benetako txapel-duna Goizueta izan baita aurten ere. P.D.: Salagarria eta lotsagarria Labriteko finalean euskarari eman zitzaion tratamendua. Egia esan, inor ez zen harritu, beti horrela izan baita.

ESTEBAN AROZENA. GOIZUETA.



Arkupeak Elkarteak zaharrenak 'mayores' ote?

Arraspenatua idazten dut. Ez dut inor hasererrazi nahi, baina euskarak ez du bazterketa hau merezi. Arkupeak 9. aldizkaria plazaratu du, txukun eta alai,

OHARRA:

Eritzi ezbedinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttapa bere esku izanen du horretarako eskubidea.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 04
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

BOTA BERTSOA



Udan eguzkipean edo itzalpean?

Noelia LINARES

Hamarreko handian

Batzuk mendira ibili nahian joaten dira zuzenean ta bertze batzuk egoten dira itxasoko bazterrean jende gehiena hortxe daukagu udako eguzkipean eguzki izpiak hartzeko asmotan beltz-beltzak jarri nahiean ni bezalako gazteak berriz liburuen itzalpean.

Batzuentzako eguzkia da benetan jasanezina gorri-gorriak jartzen dira ta hori sekulako mina eta bertzeek beltzak jartzeko egiten dute ahalegina nire ustea hauxe da behintzat bertze batzuen berdina eguzki izpien beroa dugu guztiz oso atsegina.

tor hau? Ez duzu, seguraski, Malerrekako Mankomunitateko Lehendakariak egin duena egiterik, Euskara Teknikariak baliatzerik? –Alfabetatu gabea izanen zarelakoan ari naiz— Hau miseria!

Ondorioak: 1911an jaiotako 44 zaharrenak eta due-la 50 urte ezkondu ziren 15 bikoteak ailegatu zaizkigu, orain. Zorionak! Ez sinetsi, ordea, hainbertze urtetan euskararekin sufritu du-zuen amorrua, euskara bai-ta, seguraski, utziko digu-zuen heredentzirik prezia-tuena eta.

74 lagun artean, 10 eus-kaldun soilik? Ez. Goian ai-patutakoak eta euren aitzin-dariak sortutako giroaren ondorioa duzue hau. Zuei dagokizue bilobei garbia-goia uztea. Euskara erabi-li, ez lotsatu!

LANGARRA EUSKARA TALDEKO KIDE BAT



Iberdrola: zerbitzu

penamangarria

Kasik 2.000 garren urtean gaude, eta egia erran, iduri du zenbait zerbitzuz ez dutela sekulan antzinerat egiten, ez bada behinik behin faktura pasatzeko orduan. Hoietakoa bat argindarraren zerbitzua da. Noiznahi badaude argimozketak, berdin dio uda edo negu, gau edo egun. Guttien espero duzunean eta aunitan arrazoi garbirik ikusten ez dela, argia joaten da eta akabo! Zenbat ordu galdu ote ditugu aurten bertan argi fal-tagatik. Ez ote norbaitek honen gainean zerbait gehixeago egiten ahal, Herriko Etxeek bederen?

LUIS M. IBARRA

III GARAGARDO BESTA

ABVZTVAK 3 IRYRITA ATSALDEKO 5-ETAN

12

30

O
R
D
U

M
U
S
I
K
A

G
A
R
A
G
A
R
D
O

M
O
T
A

SARRERAREKIN BI PERTSONA MUNICH-EKO GARAGARDO BESTARA JOATEKO BIDAIA ZOZKETATUKO DA

SARRERA: 1500 ANTOLATZAILEAK: IRURITAKO GAZTEAK

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



ANDER GILENA

Egunkaria 96-VII-14

«Gerra hasi eta berehala esan zidan batek "goazen Frantziara". Penaz oroitzen naiz ez eskapatu izana».

Inazio REKONDO
Leitzarra. Erreketek izandakoa.
Egunkaria 96-VII-14

«Nafarroa armatu zuten, baina apaizak eta kristo guztiak! Apaiz batek esan zigun guri, bazituela zazpi fusil eta bi kaxa munizio».

Fraixku OLANO
Leitzarra. Erreketek izandakoa.
Egunkaria 96-VII-14

«Baztandarren Biltzarra pasata, ez zaie (udalekoei) deus inporta zer den kultura, baztertua dute. Udala bezala ez dira kapaz izan deus egiteko, nik ez dakit hor gaudela dakitenik ere. Ez dakite badirela ehun andre orain arte ez zirenak deustaz kezkatzen eta guztiak elkarrekin Baztandarren Biltzarreko lema betetzen dutenak».

Mari Kruz GOÑI
Arizkundarra. Dantzaria.
Egunkaria 96-VII-21

◆ **Fabrikako lana edo Herriko Etxeko buruhaustea?**

❖ Fabrikako lana, noski, hortatik bizi gara eta nahiko buruhauste izanen dugu hemendik aitzinera.

◆ **Nola konpontzen zara bi gauzak batean eramateko?**

❖ Sakrifizio handia egin behar da, batez ere familia eta lagunengandik.

◆ **Alkate edo zinegotzi?**

❖ Zinegotzi bezala aisa lasaia egoten da baina denbora izanez gero, hobe alkate.

◆ **Zer gisa jendearekin?**

❖ Iduritzen zait herriko jende gehienarekin harreman onak ditudala.

◆ **Lehenengo bestak edo oraingoak?**

❖ Gaztea baldin bazara eta gazte sentitu, lehenengoak eta oraingoak.

◆ **Bestetako programa ikusiz, zer da gehien gustatzen zaizuna?**

❖ Denak gustokoak ditut, baina bat aukeratzekotan, txirringulak.

◆ **Besta gauzez edo egunez?**

❖ Beti izan dute 'morbo' gehiago gauzez. Halere, horrek ez du erran nahi egun osoa lo egon behar dugula.

◆ **'Bakalao' musika gustoko duzu?**

❖ Musika guztiak gustoko ditut, batzuk bertzeak baino gehiago, jakina.

◆ **Kirola egin edo telebista ikusi?**

❖ Kirola egin, dudarik gabe. Telebista gero eta guttiago ikusten dut.

◆ **Zer falta da herrian?**

❖ Herri gehienetan bezala gauza aunitz dira egiteko, baina Herriko Etxea berritzeak du lehentasuna. Hori da gure asmoa.

◆ **Tabernako giroa edo plazakoa?**

❖ Giro ona egonez gero, plazakoa, dudarik gabe.



Ignacio MARIEZKURRENA
Sunbillaiko Alkatea



ROMANO dekorazioak


PINTURA ETA PAPEREZTATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

◆ Zolak jartzen ditugu:

- Kortxoia
- Moketak
- Parketa
- Sintasola

◆ Gure kolokazio tailerra daukagu

◆ Komertzioen errotulazioa



Legia I • Tel. 631137-630941 • **BERA**

Dia **Autozerbitzua deskontua**

KONPARATU ETA IKUSI

EZ DAGO MERKEAGORIK

Chopped Pork "Opi", kg
379.-

"Opi" gazta
899.-

Dia 5%
1.5l
68.-

CHIPS
77.-

Dia 5%
1.5l
109.-

Prezio baliagarriak 1996ko Uztailaren 30etik Abuztuaren 19ra

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA


Bera

Miguel Indurain bizikleta ibilaldia abuztuaren 11n korrituko da

Bi ibilbide izanen dituzte partehartzaileek aukeran

KRISTINA BOAN

Miguel Indurain izeneko nazioarteko ibilaldi zikloturista abuztuaren 11rako antolatu du Club Ciclista Beratarrak. Bi ibilbide izanen dira. Luzee-na, 174 kilometrokoa Beratik abiatu eta Doneztebe, Saldias, Orokietako gaina, Lizaso, Ostiz, Olague, Belate, Berroeta, Irurita, Elizondo, Otsondo, Dantxarinea, Sara, Lizaie-tako Gaina eta Etxalar igaroko ditu Berara bueltatu aitzinetik. B ibilbidea aukeratzen dutenek, 106 kilometro egin behar dituzte, Elizondotik Mugairin barna Berara bueltatuz.



Garroren txapel-dun maillota Gure Txokoan

Nafarroako mendi bizikleta txapelketan lortutako txapel-dun maillota eta kopa Gure txokoa elkarteari eskaini dio Juan Carlos Garrok, "elkarte honek txirrindularitzaren alde eta, orokorrean, kirola eta kulturaren alde" egiten duen lana eskertzeko. Argazkian, Fernando Berasain, Gure Txokoako lehendakariak sariak jasotzen Garroren eskutik, elkar-tearen atarean.

Arg.: GOIKO

ttipi-flash

- ❖ **Makilari txapelketara**
joanen dira Donibane Garazira abuztuaren 15ean Gure Txokoa dantza taldeko zortzi makilari.
- ❖ **Trikitixa txapelketa**
Nafarroan ospatuko da abuztuko asteburuetan eta Berako Amaia eta Joseba Irastorza anai-arrebek parte hartuko dute.
- ❖ **Agerrako bestak**
Abuztuaren 24 eta 25ean ospatuko dira. Ekitaldi nagusienak larunbat arratseko dantza saioa eta cross laisterketa eta igandeko aizkol apustua, dantza lehiaketa eta ziki-ro jatea izanen dira. Musika ere izanen da arratsetan.

Josu Unsioren epaiketa hirugarren aldiz gibelu dute

Uztailaren 15ean izan zen Josu Unsioren Berako preso politikoaren epaiketaren hirugarren saioa. Hau ere, aitzineko biak bezalaxe, bertan behiti

gelditu zen, fiskalak testigu berri bat eskatu zuelako. Testigu berria eskatzearen arrazoia, Josuk salatutako tratatu txarrak ikertzea izan da.

Berak egindako salaketa 'Amnesty International' erakunderaino ailegatu da eta gertatutakoa ikertzeko prozesua ere ireki omen dute. Epaiketa-

ren hurrengo saioa irailaren 19an burutuko da, baina bien bitartean epaile aldaketa izanen da eta horrek, atzerapen gehiago suposatuko du.

ONGI PASATU SANESTEBANAK

GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63



ZALAIN
J A T E T X E A

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa
☎ 63 11 06
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

SAROB
okindegia




SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

BERAKO BESTETAN EZ GAUDE DENOK



Joxelu



...



...



Sebas



Josu

EUTSI LAGUNAK

*Besta giroan ez bazaudete ere,
beratar aunitzen gogoetan zaudete*

**BERATAR EUSKALDUNAK
GOGOAN IZAN ITZAZUE**

BERAKO EUSKAL PRESO POLITIKO
ETA ERREFUXIATUEN LAGUNAK

Lesaka

Udalaren Hirigintza plan berria egiteko lehen pausua eman da

Hasierako dokumentazioa eta PNVk proposatutako zenbait moldaketa onartu ziren batzarrean

AITOR AROZENA

Herriari itxura berria emanen dion hirigintza udal plana egiteko prestaketa dokumentazioa onartu zen azken plenoan, PNVk proposatutako aldaketa batzurekin batera. PNVk eta EAK aldeko botua eman zuten eta HB abstenitu zen, "aztertze denbora gutti" izan zuela erranez.

Plan honek aldaketa ikusgarriak eraginen ditu herrigunean. Honela, eskola zaharrekin mugatzen duten Beheko Plazako etxeak botako dira eta bertan etxalde bat eginen dute Kultur Etxea, liburutegia... eraikitze ko eta autobusak apartatzeko lekua ere presatuko da. Mataderi zaharrean, Villa Isabel eta Osasun Zentroaren ondoan eta lehengo pizinetako parkea eta Antoiu karrikaren artean etxebizitza berriak egin nahi dira, bertze zenbait asmoren artean.



Musika bereziaz betetako asteburua

Kolore biziz eta doinu mexikarrez betetako kontzertua eskaini zuen uztailaren 19an Mexikoko Makochi Ofrenda haur abesbatzen taldeak elizan. Ondoren, Irungo Ametsa taldea aritu zen eta bien bitartean, bi taldeek 'Ixil ixilik' euskal kanta eta doinu mexikar bat abestu zuten.

Biharamonean, Onin erreka gainean antolatutako eszenario ederrean, '16 Jazz Eroak' taldeak kontzertu arrakastatsua eman zuen, jende aunitzen aitzinean.

Argazkiak: Aitor



ttipi-flash

- ◆ **Alkaiagako**
industrialdera argia sartzeko akordio batera ailegatu dira Nafarroako Gobernua eta Iberdrola enpresa. Argindarra sartzeko izanen den 42,4 milioi pezeta-ko aurrekontutik 25,8 milioi Nafarroako Gobernuak ordainduko du eta gainerakoa Iberdrolak.
- ◆ **Beti Gaztek**
bi futbol talde izanen ditu denboraldi honetan haundietan, Preferenten jokatu-ko duena eta Erre-gionaleko 2. mailan hasiko dena. Joan den ortziralean hasi ziren entrenatzen.
- ◆ **Oharra**
Sanferminetako egitarauan 'Pinto' goitzenarekin deitu genituen anaiak Otxotorena abize-na dute.

TXIRULA
Albistur, 39-K • ☎ 627542 • LESAKA
bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

BEKO ERROLA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

LEGARRA
Legarrea, 9 • ☎ 63 70 30 • LESAKA

INPRESOAK
TRUKE LETRAK
MEDIKU ZIURTAGIRIAK
NAN ESKAERA
AZKEN BORONDATEAK

UDAKO ORDUTEGIA
Goizeko 9etatik 13.30etara eta
arratsaldeko 5.30etatik 8.30etara
Uztailaren 1etik Abuztuaren 31ra

Etxalar

Adintuek aukera bat gehiago dute Berako Zaharretxe berriarekin

Dagoeneko bada sartu den edo sartzeko dagoen etxalartarrik

PELLO APEZETXEA

Lehengoa baino haundiagoa denez, jende gehiagorentzako balioko du Beran ireki berri den Zaharretxeak. Oraindik xehetasun guziak argitu gabe badaude ere, segur da Etxalarko Udalerriak ere parte izanen duela etxe horretan. Dirulaguntza emanen du, eta Larraburukoa baino asistentzi gehiagoko behar duten etxalartarrek ateak zabalik izanen dituzte Berako Zaharretxean. Horrela iduri du, behinpehin, gure Udalbaskideek Berako arduradunekin egindako solasaldien ondotik.

Etxe berria egiteko zailtasunak

Etxe berri bat egi-



Gure herrietan maiz ikusten ez dena. Kanpoan patxadaz egoteko giroa denbora laburrez izaten baita

teak, sosa pila bat gatzatzeaz gainera, zenbait pauso eman beharra eskatzen du, zenbait paper bete beharrek hemen eta han: arkitektoarenak, Udala-

renak, Gobernuarenak. Horiek denak egin ondotik, ordea, baimenik gabe gelditzen bazara, pentsa nolako barrena gelditzen ahal zaizun. Hori gertatu da orain-

goan, Antsolokuetan egin nai den etxe bategin. Herriko baime-nak eskuratuagatik, Nafarroako Gobernuak ukatu egin baitu berea. Arrazoia?

Karrika guziak sarra eta atera behar omen ditu, zera alegia, puntu batetik sartu eta bertetik ateratzeko aukera. Sartu den lekutik ateratzea ez da aski, omen.

Igerilekua: aldatu dira gauzak

Aintzineko TTIPITAPAN, lehen egunetako giro kaskarra aldatuko zelako esperantza agertzen genuen. Bai aldatu ere. Egun zoragarriak etorri baitira ondotik, igerilekua jendez bete, bonu salmenta haunditu. Bada asteburuetan egunpasa etortzen den kanpotarrik ere, bertze gauza artean, igerileku lasaiaz gozaten dutelako.

« **USOA** »
NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA

BOAN
TAILERRA
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

HERRIKO
OSTATUA
Jatetxea



Proba ezazu gure ostruka plater exotikoa

☎ 635290
ETXALAR



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735
Irun ☎ (943) 622305

Igantzi

Trenbide zaharrak babestu nahi ditu Nafarroako Gobernuak

Heldu den larunbat arratsaldean jokatuko dira Pala Txapelketaren finalak

OSKAR TXOPERENA

Interes handiko ibilbideak izanen dira hemendik aitzinera orain erabiltzen ez diren trenbideak, Igantziko Bentatik pasatzen dena horien artean. Hau dela eta, babesa eskeini dio Nafarroako Gobernuak, erabilera eta inguruan egiten ahal diren ekintza ezberdinak zehaztuz.

Pala Txapelketa

Aurten ere animatuak ageri dira Pala Txapelketaren finalak. Heldu den larunbat arratsaldean jokatuko dira, eta ondotik, urtero bezala, Biltokin izanen da afaria. Aitzaki ederra izanen dute pilotari guztiak Berako bestetara agertzeko.



Aurtengo udako eguraldiak ez du iazkoarekin zer ikusirik. Nahasi xamarra dabila, tartean egin duen aste eder hori kenduta. Halere, 300 lagunek hartu dute igerilekuan sartzeko abonua eta, eguzkia atera orduko giro polita izaten da. Ikastaroetan, berriz, iaz baino jende guttiago dabil. Uztaila erdira arte arazoak izan dira gainera haurrei klaseak emateko, eguraldi hotzarengatik.

Oskar TXOPERENA

Ordutegi berria Herriko Etxean

Herriko Etxeko bule-

goak itxita egonen dira arratsaldez abuztu osoan. Goizez, halere,

orain arteko ordutegiarekin segituko dute.

Istripua Igantziko Bentetan

Istripu ikusgarria izan zen lehengo egunean Igantziko Bentan. Iruñe aldera zoaien kamioiak erremolkea galdu eta Hita Jatetxeko atarera sartu zen. Eskerrak ez zuela ez jenderik ez autorik harrautu.

Ebasketak San Juan Xarren

Dagoeneko han egiten diren mezak akautu badira ere, San Juan Xarreko berri badugu oraindik. Lehen aipatuketu dugu autoetan ebasketaren bat izan dela. Iduri du oraindik lan horietan segitzen dutela eta ura eske edo joan ezkerokontuz ibili behar da autoarekin.



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13
948 - 62 75 47
LESAKA

Lagunekin
elkartzeko
toki egokia

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiama, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua



DESINFECCIONES

© 63 01 55
BERA



ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mobleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurriera eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberrituak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - **LESAKA**

Malerreka

TTIPI-TTAPAREN laguntza erabakitzea airean dago

Euskara Batzordeak deitutako bilerara arras jende gutxi bildu zen deus erabakitzeko

TTIPI-TTAPA

Heldu den urteari begira TTIPI-TTAPAREN defizita finantziazteko Malerrekako Mankomunitateak ematen ahal duen dirulaguntza erabaki gabe segitzen du oraindik. Asuntua aztertzeke bilera deitua zuen Malerrekako Euskara Batzordeak uztailaren 24rako bainan bakarrik Donamaria, Doneztebe, Saldias eta Sunbillako udal ordezkariak agertu ziren Mankomuni-

tateko egoitzara. Bortzirietako Euskara Mankomunitateko bi udal-ordezkari ere bertaratuak ziren bileran parte hartzeko.

Nolanahi ere *Quorum* nahikorik ez zegoenez, gaia iraila aldera bertze bilera batean aztertzeke utzi zen.

Gogoratu behar da aldizkari honen finantziazioaren zatirik haundiena publizidatetik eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzatik heldu bada

ere, udalen dirulaguntzak ere behar beharrezkoak direla gaur egun bezala TTIPI-TTAPA zonako etxe guzietara ailegatzeko.

Malerrekako 1.240 familiak hartzen dute etxean TTIPI-TTAPA aldizkaria



ttipi-flash

◆ Sunbillako frontoiko ostatua

Bestatan norbaitek frontoiko ostatua hartu nahiko balu aguztuaren 2ko ordu bata baino lehen aurkeztu behar du bere proposamena Herriko Etxean, bere izena eta zenbat ordainduko lukeen adieraziz.

◆ Sunbillako eskola garbitzea

Datorren ikasturteko eskola garbitzeko lehiaketa ere egingen da. Ortziriletan bi orduko lana izanen da. Eskaintzak abuztuaren 2a baino lehen Herriko Etxean aurkeztu behar dira.

NOLANAHI BEGIRATUTA, RENAULT IZANEN DA



Renault Express %15a bitarteko deskontua

55 CVko potentzia, 5 abiadura; 5 eserleku kristalezlatu, sabai irekigarria; argiak baretik erregulatzeko mekanismoa; atzeko aulkia tolesgarria eta kargalekuko zola estalia.

RENAULT EXPRESS **1.340.000*** (BEZ bane)



Renault Trafic Combi 6. %25eko bitarteko deskontua

Baina prezioan bakarrik! Eraman ezazu Renault Combi 6a %25eko deskontuarekin eta ekipamendurik hoberenarekin: 6 eserleku kristalezlatu, lagunduriko direkzioa, kanpoan angelu haundiko atzeranzko ispiluak, atzeko ateak 180°tan zabalgarriak eta 90°tan atxekigarriak, gidariaren eserlekua hirudimentsiotan erregulagarria eta bizkarralde makurgarria...

RENAULT TRAFIC BIZITZA OSORAKO **1.899.000**** (BEZ bane)

*Ekipamendua aukeratu ostean. Prezioa Renault Express R1 1.2, 55 cv, Sabai irekigarria, BEZ, gaitasun eta promozio bane. Hilebeke bitartean eta azkenean daukan ibilgailuetarako balioa. Ezin izanen zara bertze promozioei gertu.

**Prezioa Renault Trafic 900 Combi 6a, 6 eserleku, BEZ, gaitasun eta promozio bane. Hilebeke bitartean eta azkenean daukan ibilgailuetarako balioa. Ezin izanen zara bertze promozioei gertu.

PEDRO GARMENDIA, S.A.
Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 ELIZONDO

TALLERES SANTESTEBAN
Leitzako Errep., 1 kma - Tfnoa. 45 02 82 DONEZTEBE

SEMPER HNOS., S.L.
Irun - Iruña Errep. - Tfnoa. 63 06 21 BERA



Doneztebe

Josu Juanena herritarrak irabazi du Iberiar Akordeoi Saria

Eskualdeko akordeolarien maila gero eta hobe dela uste du Angel Manuel Belio irakasleak


ZARBO IBARROLA

Josu Juanena, 16 urteko akordeolari doneztebarra estatuko eta Portugaleko akordeolariak biltzen dituen Iberiar Akordeoi Sariaren irabazle suertatu da junior mailan.

Lehiaketa Portugalgo Alcobaca hirian burutu zen. Josuk derrigorrezko piezaren ondotik, Johan Sebastian Bach eta Wogdan Prezc musikarieren konposizio bana jo zuen.

GOI MAILAKO IKASKETAK

Josu Juanenak BUPeko bigarren maila bukatu berria du eta akordeoi goi mailako ikasketak egiten ari da. Berak errandakoaren arabera, "musika klasea jotzea aunitz gustatzen zait, musika herrikoia ere gustatzen zait, denetik pixko bat... Ahal dudan bitartean lehiaketetan parte hartzen segitze-



Josu Juanena, Portugalen irabazi zuen sariarekin batera. Hamasei urteko akordeolariak lehiaketetan parte hartzen segituko duela adierazi du

Argazkia: ZALDUA

ko asmoa dut". Lehiaketa hasieran urduri xamar zegoela onartzen du, "baina aitzinera zoaien neurrian lasaitu nintzen eta dena ongi joan zen".

Narbarten bizi den Angel Manuel Belio da Josu eta bertze do-

zena bat akordeolarien irakaslea. Josuren lana aztertzerakoan honako hau erran du: "hagitz ongi dabil, maila altuan eta lehiaketan ezin hobe aritu zen". Belioaren erranetan eskualdeko akordeolarien maila aunitz igot-

zen ari da eta mentalitatea ere aldatzen ari da. "Lehen bi jota ikastearekin nahikoa zela uste zuten eta gaur egun akordeolariak errepertorio berriak apreziatzen dituzte. Argi dago hemen etorkizuna badela".

Bertako produktuen erakusketa eta salmenta

Bertako produktuen Feria ospatu zen Donezteben uztailearen 20an. Zonako zenbait gasnagile, talogile, sagardogile, Baztango likoreak eta ahatekiak ikusteko eta dastatzeko aukera izan zuen bertara hurbildutako jendeak.

Egia erran, ez zen jende sobera azaldu eta hurbildutako guztiak Doneztebe eta inguruko herrietakoak ziren. Datorren astean, Elizondoren txanda izanen da eta bertan probatu ahal izanen dituzte produktu hauek.



IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA

MERTZERIA

Parrokia 6
Tfnoa: 45 04 63
DONEZTEBE

Maricruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - **DONEZTEBE**



SANTAMARIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - **DONEZTEBE**



UDA HONETAKO EZKONTZETAKO
KANPAINA BERRIA HASIA DAGO

KALE Nagusia 4 - TEL. ETA FAX: 45 08 25 **DONEZTEBE**
SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 **ELIZONDO**

Beintza-Labaien eta Donamariako usategiak enkantean

Beintza-Labaienen hiru lote eta Donamarian sei zozketatuko dira

TTIPI-TTAPA

Beintza-Labaiengo udalak enkante publikoan jarri du lau urterako hiru usategiren probetxamendua.

Lehen lotea Uzta-korta ingurukoa da, Ietik 12ra bitarteko postuak eta hasierako prezioa 1.400.000 pezetakoa da. Bigarrena Ameztiakoa da, Ietik 8ra bitarteko postuak eta hasierako prezioa 450.000 pezeta. Lotzabiango Ietik 12ra bitarteko postuak ere enkantean aterako dira, 700.000 pezetako hasierako prezioarekin. Lehenbiziko enkantea abuztuaren 31n eguerdiko 12etan egingen da Beintza-Labaiengo Herriko Etxean. Hau eman gabe gelditzen bada, irailaren 6an, ordu eta leku berean egingen da enkantea, hasierako prezioa %10 beheratuta. Hau ere eman gabe geldituko balitz irailaren 13an egingen litzateke hirugarrena, hasierako prezioa %20an jeitsiz.

Donamariako udalak ere enkante publikoan aterako du usategien probetxamendua, bortz urtetarako. Golbaiko hamar postuak 2.900.000 pezetako hasierako prezioa izanen dute. Uztala-

korta inguruko zazpi postu aterako dira, hasierako prezioa 1.400.000 pezetakoa izanen delarik. Txarutako bortz postuen hasierako prezioa milioi erdi pezetakoa izanen da. Labeaga-Amezketako hamabortz postuak milioi batean aterako dira eta Ubedo-Argibel inguruko hamalau postuak 200.000 pezeta izanen dute hasierako prezioa.

BIDAKORRIKO POSTUAK URTE BETERAKO

Eraberean, Donamariako udalak Bidakorri inguruan hamairu postuz osatutako usategi lotea ere aterako du urtebeterako, nahiz eta udalaren eta hartzailearen artean akordio batera ailegaten bada, bortz urte arte luzatzen ahal den.

Lehen enkantea Donamariako Herriko Etxean burutuko da abuztuaren 24an, arratsaldeko 1etan. Enkante hau eman gabe gelditzen bada, bigarrena hasierako prezioa %10ean beheratuta egingen da abuztuaren 30ean, leku eta ordu berean. Hau ere eman gabe geldituko balitz, irailaren 6an egingen litzateke hirugarren enkantea, %20an beherapenez.

ITUREN: MENDAUR EGUNEKO ARGAZKI ZAHARRAK



- 1 1963. urtean sekulako besta antolatu zen Iturenen Trinitate ermita berri zela eta. Argazkia Trinitate egunean hartua da Iñarreko atarian, ostatua idekia zelarik. Ez dakigu sokatiran edo zerbait garraiatu nahian dabilzan.
- 2 Iturengo mutiko gazteak makil dantzaz, gaur egun itxia dagoen Tolatea ondoko larrainan.
- 3 Herriko neskatxak Don Bixente herriko apaiza zela ikasitako dantzak erakusten arestian aipatutako larrainan. Atzekaldean, eguna ospatzeko egin zen bazkaria. Gaur egun urtegiaren egiten den bazkaria da hauxe.

Argazkiak: Albinea eta Motzeneakoek utziak



mugan

IRUNgo merkatal elkarte

■ Nola sortu zen MUGAN?

□ Lehen Irunen hiru merkatal elkarte ziren eta 1995. urtean bildu zirenean sortu zen MUGAN. Merkatal-Hirigintzaren Planean jasota dago merkataritzak beregain hartu behar duen erantzukizunen artean lehena dela batasun hau.

■ Zeintzuk dira MUGANen helburuak?

□ MUGAN elkartearen helburua Instituzioen eta bestelako erakundeen aurrean presio egiteko talde bat izatea da, Irunek konpetitu ahal izan dezan inguruko nahiz beste herrietako inplantazioekin, bere bazkideen interesak defendatzea inoiz ahaztu gabe.

■ Sortu zenetik zernolako lanak egin ditu?

□ Askok eta era askotakoak egin ditu, bazkide berriak hartzeko ekintzetatik hasi, bazkide guztiak identifikatuko dituen MUGAN marka berezia sortzetik pasa, bazkideen kolektiboarentzat banku, aseguru, garbiketa, suitzalgailu eta abar entitateekin hitzarmenak eginez abantailak lortzea eta azkenik, Udalarekin harreman iraunkorrak edukitzera heldu arte.

■ Nolako harremanak dituzue Udalarekin?

□ Sortu zenetik, MUGAN elkarteak harreman zuzena eta joria eduki du bere Zuzendaritza Juntaren bitartez udal departamendu desberdinetako arduradun politikoekin. Kolaborazio horren adibide bezala gogora dezakegu "Hispanoamerikarren Artisau eta Ohituren Azoka" deiturikoa, Gabon bezperatan eta Irun erdi-erdian kokatu zena; MUGAN elkarteak, bere bazkideak eta Irungo merkataritza defendituz, Udalari errekurtsio bat aurkeztu zion azoka hori ixtea eskatuz eta lortu

egin zuen.

■ Nola ikusten da MUGANetik Irungo merkataritzaren etorkizuna?

□ Alde batetik, gure ardura da botere publikoei heleraztea Irunek **hirigintza** egoki bat edukitzeak garrantzi handia duela, horrela Irungo nahiz beste herrietako jendeari bidea erraztu eta animatuz hiri barnean erosketak egin ditzan. Irunek, eta bidezkoa da esatea, hiriburu baten mailako dendak ditu baina hiria ez dago prestatua beste hiriekin konpetitzeko, alegia, oinezkoen bide zabalak, sarrera errazak, aparkaleku nahikoa eta atrakzio kultural, errekreatibo eta ostalaritza mailakoak ez ditu eta horiek egiten dute erosketak ekintza ludiko eta denbora pasakoa izatea.

Horregatik, dendariok kezkatuak ikusten dugu diru publikoarekin inbertsio handiak egiten direla hirien kanpokaldean zentro komertzialak jartzeko baina gero ez direla beste baliabide batzuk ezartzen gure hiria erosketak egiteko toki erakargarria izan dadin.

Irunen kasuan, horrelako ezarpenetatik sor daitezkeen gainbalioak ez badira P.U.C. (Merkataritza Hirigintzaren Plana) garatzeko inbertitzen, gaur egun merkataritza tradizionalan dauden lanpostu asko galduko dira.

MUGANek Udalarekin kolaboratzeko asmoa du Irun hiria merkataritza alorrean merezitako mailan jartzeko, hori gero hiriaren onerako izango baita. Ezin dugu ahaztu Irunen merkataritza sektorea dela, lanpostuetan eta errenta gordinen, hiriko iharduera ekonomikorik garrantzitsuen.

Irun Urrutirago joan gabe.

EGITARAUA

Larunbata 10

4,30etan Baztan, Malerreka, Bidasoa, Leitza eta Sakanako txirindularitza eskolen arteko proba. **7etan** danborrada. **8etan** txupinazioa Herriko Etxeko balkoitik. Ondoren txaranga ibiliko da karrikaz karrika. **9etan** baztanzopak Posada eta Bustitz ostaluetan, kanpinean eta Ulibeltzak elkarteetan.

12etan gaupasa JATOR taldearekin.

Igandea 11

San Tiburtzio Eguna

10etan argisoinuak. **11etan** Meza Nagusia. **12etan** aizkolariak: Euskal Herriko 3. mailako txapelketa. **10,30etan** suartifizialak. Arratsalde eta gauz dantzaldia JATORekin. Egun osoan 'tren txu-txu' bat ibiliko da karrikaz karrika, nahi duen edonorrentzat.

Astelehena 12

10etan argi soinuak. **10,30etan** jubenilen txirindularitza proba. **1etan** txaranga. **4,30etan**

plater tiraketa herriarrentzat. **7,30etan** berrendua Posadan. Dantzaldia JATORekin.

Asteartea 13

Haurren Eguna

10etan trikitalariak. **11etan** haur jokoak. **12,30etan** txaranga. **4etan** haur jokoak piszinan. Arratsalde eta gauz JATOR.

Asteazkena 14

Ezkonduen Eguna

10etan argisoinuak. **10,30etan** mus txapelketa Ulibeltzak elkarteetan. **11etan** lera zakurrak. **12,30etan** helduendako kirolak piszinan. **10etan** herri afaria. Arratsalde eta gauz JATOR.



Peñen bazkarian ateritako argazkia, duela 10 urte inguru. Antonio Arretxea sunbildarra, aizkolari fina izan zen. Joan den urtean herri bazkaria egin zen. Gero presara joan ziren frexkatzera

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

GAZMENDI eraikuntzak

- Eraikuntzak orokorrean: publikoak, partikularrak
- Etxe berritzeak
- Nabe industrialak
- Saneamenduak

MARISOL JANARIDENDA

Ongi pasa herriko bestak

karrika Nagusia 7 • © 450608 • SUNBILLA

LINDA estetizista

- ✗ Depilazio hotza eta beroa
- ✗ Aurpegi garbitzeak
- ✗ Esku eta oinetako azazkalak
- ✗ Erlajatzeko masaiak
- ✗ Aurpegirako tratamenduak
- ✗ Makilaiã. Kosmetikoen salmenta

Etchezuria • SUNBILLA • ☎ 450371

EGITARAUA

**Abuztuak 2, ortzila
BEINTZA**

Arratseko 8etan altxareroak bestei hasiera emanez. Gero kalejira Iturengo txistulariekin.

9etan Baztan zopak Herriko Ostatuetan. **12etan** dantzaldia **MODESTO**rekin.

**Abuztuak 3, larunbata
LABAIEN**

10etan kalejira txistulariekin. **11etan** plater tiraketa. **7etan** aizkora apostua: Larretxea eta Senosiain, P. Mindegia eta M. Mindegia. Arratsaldez eta gauzez dantzaldia **SCAN**arekin.

**Abuztuak 4, igandea
BEINTZA**

10etan argi-soinuak. **12etan** Meza Nagusia. **1etan** akordeoi kontzertua. Ondoren aizkora apostua: J.A. Mindegia-M.A. Etxeberriaren aurka. Ondoren ahari-



Herri bazkaritan mokadu finak jateko aukera izanen da aurtien ere

proba. **6etan** antzerkia, 'Iruña Pequeño Teatro'-ren eskutik. Arratsaldez eta gauzez dantzaldia **SCANA** taldearekin.

**Abuztuak 5, astelehena
LABAIEN**

10etan kalejira. **11etan** haurrentzat 'Pista Libre'. **5etan** mus txapelketa. **5etan** 'Pista Libre'. Dantzaldia **SCANA** taldearekin.

**Abuztuak 6, asteartea
BEINTZA**
Idoia **MARIEZKURRENARI** omenaldia

10etan kalejira. **1etan** Idoia Mariezkurrena herriko atletari omenal-

dia: Dantzariak, Egaña eta Sarasua bertsolariak eta ondoren bazkaria. Arratsaldez eta gauzez dantzaldia **MODESTO** akordeolariarekin.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

MAIA HERRIKO

OSTATUA

Jatetxea

Besta ederrak pasa

Karrika Nagusia • Tfnoa: 45 01 54 • **SUNBILLA**

ESPELOSIN

ERAIKUNTZAK

Auloa baserria
Tfnoa: 45 07 73

SUNBILLA

BUSTITZ

OSTATUA

.....

Lekueder
Tfnoa: 45 05 04
SUNBILLA

ILEAPAINDEGIA

"ARTAZI"



Ongi pasa bestetan

Gindal Ibiltokia, 3 - 1ºD
Telefona (948) 450844
31791 SUNBILLA

EGITARAUA

Abuztuak 2, ortzila
Arratsaldeko 7,30etan suziriak beste hasiera emanez. Ondoren txistulariak karrikak alaitzen ibiliko dira. **9,30etan** Baztan zopak Gazteluko ostatuan.

Abuztuak 3, larunbata
10etan argi soinuak. **12etan** pilota partidua: Asier eta Erik, Xabier eta Pelloren aurka. **1etan** trikitixak. **5etan** plater tiraketa herrikoentzat. Arratsaldez eta gauz dantzaldia HAITZAMA taldearekin.

Abuztuak 4, igandea
Santo Domingo Eguna
10etan kalejira txistulariekin. **11etan** Meza Nagusia, ondoren Herriko ostatuan salda beroa. **12,30etan** aizkol apostua: Jaunarena-Senosiain, Larretxea-Telletxearen aurka. Arratsaldez eta gauz dantzaldia HAITZAMA taldearekin.

Abuztuak 5, astelehena
10etan argi soinuak. Goizez eta arratsaldez "Pista Libre" karts eta gaztelu puzgarriekin. **11etan** mus txapelketa.

Argazkiak: Edurnek utziak



Arratsaldez eta gauz dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariarekin.

Abuztuak 6, asteartea
10etan argi soinuak. **12,30etan** bertso saioa. **2etan** zikiro-jatea bertsolarekin. **5etan** herri kirolak. Arratsaldez eta gauz dantzaldia JOXE ANGELekin. Bestak ongi akitzeko txokolate jatea Herriko Ostatuan.

Aurten ez da zezenik izanen, bai ordea otordu ugari



ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

Iturgintza eta kalefakzioa

Valentin Cubero

Tfnoa: 45 17 63 • GAZTELU

TABERNA ETXEA

Besta zoriontsuak opa dizkie
 Sunbilla, Gaztelu eta Beintza-Labaiendarrei

Merkatarien karrika 12, ☎ 450007 - DONEZTEBE



TELLETXEA MOBLEAK
 Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Malerreka

190 pertsona bizi dira Eratsunen azken udal eroldaren arabera

Horietatik 116 gizonezkoak dira eta 74 emakumezkoak

L.O.

Aurten padroia edo errolda berri behar zela eta Eratsunen aritu da Jaione Zabalo ezkurarra notak hartzen.

Denetara 190 pertsona daude Eratsunen enpadronatuak, horietatik 116 gizonezkoak eta gainerako 74 emakumezkoak.

Beste gainerakoan, 51 etxe daude herrian, baina datu kezagarri bat; horietatik 17 hutsak daude. Gero herriko lokalak izenburupean hamabost erakuntza zenbatu dira, hau da, eliza, Herriko Etxea, ostatuak, 'pizifaktoria', etabar...



51 etxe daude Eratsunen baina horietatik 17i hutsak daude

Dena den, orain udan bete betean sartuak garela, umeak eta etortzen den jendearekin herria asko alaitzen da. Normalean hutsik dauden etxe gehienak

betetzen dira eta herrian uda pasatzeko aukera bada: hiru landa etxe badira eta hiruetan pentsio osoa eskaintzen dute. Eraberean, bada pisu bat

alokairuan emana eta hemen norberak presatzen du janaria. Beraz, herri ttikia da gurea baina mugimendu haundikoa uda partean.

Sendotza

Bestalde, herriko hamalau gaztek sendotza edo konfirmazioa egin berri dute eta familiekin ospatu zuten.

F. MARITORENA
Mendi eta lorategi garbiketak
 Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA

GAZTANDEGIA
 Etxeko Ardi Gazta
LIZUN
 Petxenekoborda
 Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

BERTIZKO TURISMO PARTZUERGOKO MERKATARIEN ELKARTEA

Aurtengo neguan Cancum (Mexikon) patxada ederrean, hondartza batean zaudela imagina dezakezu?

Ametsak alde batera utzi gabe eta zure herriko dendan erosketak egitegatik zure ametsa errealitatea bihur daiteke

Bi asteko bidai bikoitza, **** hotelean.
 Bidaiak 1996-11-30 baino lehenago izanen da
 Zozketa 1996ko irailaren 12an egingen da

duten dendetan konfida ezazu!

Goizueta

Kultur eskaintza zabala uda eta udazkenerako

Zine emanaldiak, diapositibak, kantaldiak, marrazki bizidunak eta beste hainbat ekitaldi burutuko dira

ESTEBAN AROZENA

Herritarren kultur gosea aisa asetzeko moduko egitaraua prestatu dute Herriko Etxean gain gainean daukagun udarako eta hurrengo udazkenerako.

Esate baterako, ale hau etxera ailegatu orduko hasia izango da Euskara Zerbitzuak urtero urtero eratzen duen kaleko zine emanaldien kanpaina. Hala ere, zinezaleei oraindik aukera gehiago gelditzen zaizkie, hil honen 9an eta 30ean beste bi filme ikus ahal izango baitira plazan, 'Bikingoak' eta 'Alvares Kelli' tituluak hain zuzen ere. Honetaz gain, UEMA



Uztailaren 21ean ireki zituen ateak Iskibiko kanpinak. Hirugarren mailakoa izan arren zerbitzu asko eskaintzen ditu, piszinak eta taberna besteak beste

erakundearen barrenean dauden herriek hainbat kultur ekitaldi bultzatzeari ekin diote. Goizuetari dagokionean, ondorengo hiru emanaldiak burutuko

dira herrian: urriaren 19an pilota goitik behera aztertuko duen diaporama saio bat eskainiko da Eva Elorza eta Koldo Izagirre zine zuzendariaren es-

kutik. Azaroaren 16an Gontzal Mendibil abeslari bizkaitar ospetsua edukiko dugu gure artean. Azaroaren 30ean berriz, eta ekitaldi hauek bukaera

emanaz, zazpi kontinentetako mendi ton-tor altuenetara eginko espidizioei buruzko diapositibak erakutsiko ditu Jose Ramon Agirrek.

Bestalde, ez da ahaztu behar 'Arte eta kultura' kanpaina ere indarrean dagoela, eta hemen besteak beste aipagarria da marrazki bizidunak egiteko prozesua erakutsiz hurrengo hilean burutuko den lau eguneko erakustaldia.

Ia gainean dauden pestetan ere kultur emanaldiren bat edo beste izango da seguraski, baina programa kaleratu arte ez dugu honen berri jakiterik izango.

Areso

Elusabergo industrialdeko partzela guziak saldu dira

Zortzi izanen dira bertan kokatuko diren enpresak

JUANA M^a SAIZAR

Elusaber parajeen kokatuta dagoen industrialdeak dagoeneko salduta ditu partzelak. Zortzi dira denetara eta enpresen izenak hauek dira: Denauto txapista, Mandriladora, Hormigones Leitza, Distribuidora Arraras, Construcciones Goikoetxea eta Villabona Eskabazioak, Euskron erraminta fabrika eta Cartonajes de Ori. Azken bi hauek

etortzekoak dira oraindik eta bakoitzak bi edo hiru lanpostu sortzeko asmoa daukate (suposatzen dugu herrikoak). Dagoeneko 6 lanpostu sortuta dituzte besteek.

❖ **Erreziboak** (in-pesto municipalak tasak eta kontribuzioak) domiziliatu nahi duten guztiek pasa daitezela Udaletxetik bere sinadura emateko eta libretaren zenbakia eramateko.



Leitza

Erdi Aroan girotutako Feria ospatuko da asteburu honetan

Bestalde, harrizko paretetan pintadak ez egitea eskatu du Udalak eta kartelak jartzeko lekua egokituko du

JOSEBA AZPIROZ

Abuztuaren 3 eta 4ean Aintzinako Ferien giroaz gozatu ahal izanen dugu. Feri hauek Erdi Aroan girotuak daude. Doinu zahar, kobalari, ipuin kontalari, merkatari, jentil, azti... eta kasta ezberdinetako jendilajea agertuko da. "Asociación de Alimentos de Navarra" elkarteak antolatzen du azoka hau.

Kartelentzako taula jarriko da

Udalak, bando baten bidez adierazi du eskertuko duela harrizko etxe eta paretetan pintadarik ez egitea, garbitzeko oso zailak direlako. Kartelak minesotarekin erans-



Azken urteotan egin ohi duen bezela, Udalak bazkari bat eskeiniko die 65 urtetik gora dituztenei eta jubilatuz guztiei. Bazkaria Oialde tabernan izanen da eta interesatuek abuztuaren 6a baino lehen bere hartan izena eman beharko dute

tea eta zahartzen direnak biltzea proposatu du. Kartelentzat taula batzuk jartzeko akordioa ere onartu zen.

Iratxe Kontsumitzaileen elkarteak eskaintzen duen zerbitzua mantentzea erabaki du udalak. Zerbi-

tzu honengatik hilero 27.500 pezeta ordaintzen ditu, leitzarrok zerbitzua dohain izan dezagun.

ttipi-flash

Asketakoak ETBko 'Hau da marka' saioan

Abuztuaren 19an, gaueko 10etan, ETBko 'Hau da marka!' programako partaideak leitzarrak izanen dira. Seiak Asketa abesbatzakoak dira eta lortutako saria erakunde honentzat utzi zuten.

Bost langile

hartu ditu Udalak festa aurreko eta festetako lanak egiteko. Izena emandakoen artean sortea egin zen lanpostuak banatzeko.

SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estruktura eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA



Tel.: 450 133

451 541

Faxa: 450 334

DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Ongi pasa herriko festak

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

Baztan

Baztandarren Biltzarra ospatzera jendetza haundia bildu zen

Ogia egiteko aitzineko modua erakusten zuen Zigako orgak irabazi zuen lehiaketa

TTIPI-TTAPA

Goiz eta arratsaldean egin zuen eguraldi ezin hobearen laguntzarekin ospatu zen uztailaren 21ean Baztandarren Biltzarren 33. edizioa. Baztango herrietatik nahiz ingurukoetatik hainbat jende etorri zen, eguerdi parteko orgen desfilea ikustera batez ere. Bederatzi karroza berterik ez ziren atera, sei herrietakoak eta Gestorak, erresidentziak eta Doike euskara taldeak karrikarutakoak. Horien artean, ogia egiteko aitzineko modua erakusten zuen Zigako orga suertatu zen irabazle.

Merkatu plazan egindako bazkarian 1.600 lagun elkartu ziren eta otorduaren ondotik bazkalondo goxoa izan zuten musikari, kantari, bertsolari eta bertzelako ikuskizunekin.

Mutil-dantzen txandan gorabeheraren bat izan zen, neskak dantzan hasi zirenean. Baztaren ustez gizonetakoek bakarrik dantzatzeko ahal zuten, eta bertzeek, emakumeek dantzatzeko duten eskubidea eskatu zuten.



Baztandarren Biltzarren 33. edizioak jende ugari eta karroza ikusgarriak ekarri zituen Elizondoko karriketara Argazkia: Joxemanuel

Ipuin kontalariak herriz herri

Abuztuan ipuin kontalariak aditzeko aukera izanen da zenbait herritan, Doike euskara taldeak antolatutako ekitaldian.

Abuztuaren 9an Koldo Ameztoti arituko da Elizondon 10 urtetik goitikoendako. Abuztuaren 21ean Lezarotzen Koro Irazokik haurrendako ipuinak kontatuko ditu. Abuztuaren 22 eta 23an Irurita eta Berroetan Joxe Mari Karrere izanen da. Irailaren 13an, azkenik, Baztango jendearen ipuinak aditu ahal izanen dira Erratzun.

ttipi-flash

♦ Garagardo Besta

Abuztuaren 3an ospatuko da hirugarren edizioa Iruritan, herriko gazteek antolatuta.

♦ Amaurko arkuak

ez da bestetarako akituko, lanak gibelatu baitira. Arkuak lehengo ezaugarriak izanen baditu ere, metro erdiko altuera gehiago izanen du.

♦ Tiroa airera

Baztandarren Biltzarrean, amnistia-aren aldeko manifestazioa burutzen ari zela airera tiroa bota eta ihes egin zuen guardiazibil batek.

♦ Bertako produktuen feria

ospatuko da Elizondon, abuztuaren 10ean, larunbata.

♦ Jorge Oteizak

Elizondoko herriari eskainitako eskultura inauguratu zuen Santiago egunean, elizako parkean. Egia erran, harridura sortu du herritarren artean.



JATETXEA

Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

SAS KAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de



**Era guzietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

BAZTAN

FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoa: 580373 • (908) 776176

EGITARAUA

Abuztuak 9, ortzilerie
Bezpera

12etan suziriak eta ez-
kilaren errepika. 8etan
baztan-zopak Etxezuri
eta Indakoa ostatuetan.
9etan gazteen afaria.
12,30etatik 4,30etara
ELURTE taldea.

Abuztuak 10, larunbata
San Lorentzo Eguna

9etan argi soinuak.
11etan Meza Nagusia.
12etan Zigako dantzari-
ak. Ondoren hameketa-
koa herriko plazan.
Arratsaldean eta gauaz
ELURTE. 10,30etan
afaria herriko frontoian.

Abuztuak 11, igandea
Gazteen Eguna

11etan mus txapelketa.
12etan nesken pala
txapelketa. 6etan muti-
len pala txapelketa.
Arratsaldean eta gauaz
HARITZA. 10,30etan
kantaldia.

Abuztuak 12, astelehena
Haurren Eguna

11etan nesken pilota
txapelketaren finala.
12etan mus txapelketa-
ren finala. 1etan muti-
len pilota txapelketaren
finala. Haurrendako jo-
koak. MODESTO.

Abuztuak 13, asteartea
2etan zikiro-jatea. On-
doren, zahar-gazteen
arteko norgehiagoka
(sokaira, txingak...). Arra-
tsaldean eta gauaz MO-
DESTO. 10,30etan ziki-
ro afaria. Bukatzeko
'Jai-Hilak'.

**Zigako San Lorentzoak abuztuaren
9tik 13ra ospatuko dira**

Otordu ederrak egunero, mus eta nesken eta mutilen pilota txapelketak eta bertze hainbat ospakizun izanen dira



Goiko argazkia Nicolas Mitxelorena irakaslearen despedidakoa da. Ezkerraldeko argazkiko bikotea zikiro-jatea ospatzen ari da. Nabari denez, aspaldiko kontua da zikiro-jatearena. Lerro hauen gainean, neska gazte kuadrila. Lan polita izanen duzue guztiak banan bana ezagutzen.

Argazkiak: Pablo MENDIBURUK utziak

ERTZILLA
ALBAITARITZA
KONTSULTA
Txakur eta katuendako
ORDUTEGIA
10etatik 1etara eta 4etatik 8etara
Larunbatetan 10etatik 1etara
Sanjago 30, ☎ 580627
Larrialdiak: ☎ 580762
ELIZONDO

ERLOJU eta BITXI DENDA
ARRIETA
KIROL TROFEOAK
Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

ARLA
ARDOTEGIA
Ardoak • likorrak • freskagarriak
Santiago, 56 • ELIZONDO
☎ 45 32 66 (etrekkoa) ☎ 45 24 73 (bodega)

TABERNA ETXEA
Besta zoriontsuak opa dizkie
Zigarrei
Merkatarien karrika 12, ☎ 450007 - DONEZTEBE

*Eskisaroi
jatetxea*
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

Zugarramurdi

Herri ingurua zaldi gainean ikusteko aukera dago

Alfontxo eta Elena anai-arrebek zazpi zaldi jarri dituzte ibilaldiak eskaintzeko

MARGARI ETA KORO

Arras udako giroan sartua dugu herria eta gan den urteko nobedadea *Sorginak* antzerkia baldin bazen, aurtengoan berriz, zaldiak ditugu. Alfontxo eta Elena anai-arrebek zazpi zaldi jarri dituzte jendeari zaldi-ibilaldiak eskeintzeko. Lezeko atetik ateri eta hiru aukera dituzte: lehenbizikoan 3 orduko ibilaldia, errota aldera (750 Pta.), bigarren aukeran orduko ibilaldia dago, Sarako Lezetako inguruetara 1.500 Pta.) eta hirugarren aukera,



Ingurua zaldi gainean ezagutzeko aukera polita eskaintzen da

azkenik, egun osoko ibilaldi desberdinak (5.000 Pta.)

Herriko Bestak
Hurrengo TTIPI-TTAPAN agertuko da pro-

grama, baina halere, jakitera ematekoa da aurten izanen den al-

daketa. Betitik bestetako hirugarren egunean egin den eskea aurtentaldatu egingen da egunez bezperan egiteko. Hunen arrazoia zera da: hirugarren egunerakoz gazteen gorputzak ez omen dira relata sasoinik hoberean egoten eta bezperan besta egin ondotik gogor egiten omen da goizeko 10 eta jeikitzea eta goiz guztia kantu, salto eta trago egiten segitzea. Hori dela eta, txupinazoa eguerdian bota beharrean, goizeko 10,30-etan botako da, gero eskean segitzea.

Urdazubi

Miguel Migeltorenak Santiago Bideko 745 kilometroak egin ditu

Atsulai taldeko sei dantzari, bertzalde, Txekoslovakian izan berriak dira.


ALIZIA OLAIZOLA

Gainekolako Miguel ek 65 urte ditu eta ekainaren 10ean abiatu zen Arkupeak elkarteko hamazazpi laguneko talde batekin Santiago-Bidea egitera. Iruñetik abiatu ziren eta denetara 745 kilometro egin zituzten Santiagora ailegatzeko. Egunero 27 bat kilometro egiten zituzten, goizeko 4ak aldera jeikita eta uztailearen 6an bueltatu ziren autobusean Iruñeraino. Miguelek ai-

sa egin omen ditu kilometro hauek, alde batek ibiltzen usadio handia duelako eta aitzinetik pixka bat prestatua zegoelako.

Atsulai dantza taldekoak Txekoslovakian

Atsulai dantza taldeko sei dantzari hamabi egun pasatu dituzte Txekoslovakian, hango familiekin bilduz. Hemengo dantzak eskaini dituzte eta arras ongi errezibituak izan dira.



Santiago-Bidea egin duen Gainekolako Miguel eta Emiliano Etxenike, onddo bilatzailea.

Sara

Liburutegiak bultzatu lehiaketan 26 idazlek parte hartu dute

Euskal familien jatorrien ikerketa zentro baten muntatzeko egitasmoa aipagai izan zen kontseiluko bilkuran

MIXEL ETA JACQUELINE

Sarako liburutegiak antolatu duen lehen lehiaketa hunek erre-kista xarmanta ukan du. Sei heldu, Gaineko eskolako hamar haur eta Behereko eskolako bertze hainbertzek parte hartu dute eta proposatu gaiaren inguruan lan bat ekoiztu dute. Euskara eta erdara hein berean erabiliak izan dira, idazlanen erdia euskara izanez eta gainerakoak frantsez. Helduetan J.M. Gaudetek irabazi zuen, *La pendule de mon père* idazlanarekin. Haurretan Pantxika Etxeberriaren *Saran Astia* eta Pantxika Leizagoien *Quel temps à Sare* idazlanak saritu zituzten.

Liburuak eskuratu dituzte saritzat.

Ikerketa zentroa

Euskal familien jatorrien ikerketa zentro baten muntatzeko egitasmoa ekainaren 7an iragan kontseiluko bilkuran gai nagusia izan da. Dirudien zentro hau Saran finkatuko litaiketa eta gastuak 1.509.630 libera-koak litaizke. Baina laguntzak eska litaizke Akitania, Euskadi, Nafarroa eta Europari. Orainokoa hastapeneko aipagaietan gara bainan diru multzo hunek galdera frango sortarazten dauzku.

Kontrabandisten

Laisterketa abuztuaren 25ean iraganen da. Hitz odua, arratsaldeko 5etan.



Tropelean Riis eta Indurain aisa nabarmendu zituen bide bazterrean bilduriko jendetzak

Frantziako Itzuliaren XVIII. etapa Saran gaindi

1949az geroztik etzen Frantziako Itzulia gure herri-rik iragan. Erraiten ahal dugu gertakari hunek araberako erre-kista ukan duela ikusle ainitz bide bazterrerat ataraziz. Txirindulari haundi gehienak hor ziren eta denek mereximendu bera balinbadute ere etapa hau eskualdun txirindulariarena zen. Zenbait balentria espero ginuen Indurain, Olano eta bertze zenbaitenganik bainan ezta holarikorik izan.



Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

Sukalde eta Bainu Mobleak

Egoki-ren banatzaile baimendua



M^{te} Dolores Miñana
TOPOGRAFOA

NEURKETA • PLANOAK

Lur neurketak, Luberriak
Plantazioak, etab...
☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO



JATETXEA

☎ 580297

Pedro Axular
ELIZONDO

Santxotena

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

ttipi-ttapa

6.200 harpidedun
21.000 irakurle

MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan



AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

EZKONTZAK

Alberto Latorre Fdez. eta **M^a Asuncion Irungarai Lopez**, Gasteiz-Iruñakoa, Elizondon, uztailaren 12an.
Jose M^a Zelaieta Otxandorena eta **Sara Gamio Migeltorena**, Igantzi eta Arraiozkoa, uztailaren 13an.
Agustin Etxabe Arraztoa eta **M^a Teresa Aizpurua Elizetxe**, Elizondo eta Erratzukoa, uztailaren 20an.
Julian Palenzuela Siscart eta **M^a Soledad Etxepare Berlanga**, Irun eta Lesakakoa, ekainaren 29an.
Gorka Benintze Irigorri Arbelaiz eta **Ana Belen Pikabea Zozaia**, Oiarztun eta Lesakakoa, uztailaren 6an.
Jose M^a Goia Irazoki eta **Milagros Muñoz Otxoteko**, Donostia eta Irungoa, Lesakan, uztailaren 6an.
Jose Joaquin Urkiola Larrañaga eta **M^a Antonia Labaka Zelaieta**, Donostiakoak, Leitzan, uztailaren 6an.
Luis Bruno Martin Garcia eta **Onditz Izeta Lizarraga**, Burgos eta Leitzakoa, uztailaren 13an.
Jose Miguel Gonzalez Berasa eta **Fatima Ramos Pacheco**, Leitza eta Tolosakoa, uztailaren 20an.
Pedro Luis Larraza Mitxelorena eta **M^a Concepcion Gallego Amaro**, Doneztebe eta Salamancakoa, uztailaren 20an.
Lorenzo Agirre Agirre eta **M^a Carmen Mortalena Salaburu**, Bera eta Erratzukoa, uztailaren 20an.

JAIOTZAK

Udane Karrikaburu Frias, Elizondokoa, uztailaren 8an.
Haritz Sobrino Urrutia, Elizondokoa, uztailaren 2an.
Enrique Jimenez Jimenez, Oieregikoa, ekainaren 13an.
Amaia Biurrarena Ubiria, Lesakakoa, ekainaren 24an.
Julen Alkain Campo, Lesakakoa, uztailaren 4an.
Leire Parra Eñeterreaga, Lesakakoa, uztailaren 19an.
Andrea Uxue Sagües Martiarena, Berakoa, uztailaren 20an.
Maddi Mikelarena Erdozain, Berakoa, uztailaren 20an.
Irantzu Mikelarena Erdozain, Berakoa, uztailaren 20an.
Ander Gonzalez Altugarai, Igantzikoa, maiatzaren 14an.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA**
 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO**
 polit bat oparitzen diegu. Amendako
 "Está creciendo" liburua daukagu.

IRUÑEKO KUTXA
Elizondo Uda - Auzoak Kutxa

HERIOTZAK

Honesta Sola Balerdi, Elizondon, uztailaren 18an, 83 urte.
Claudio Manterola Irazoki, Igantzikoa, ekainaren 21ean, 85 urte.
Jose Zarra Zubeldia, Igantzikoa, uztailaren 15ean, 87 urte.
M^a Concepción Paternain Carretero, Beran, uztailaren 9an, 89 urte.
Jesusa Sanzberro Danboriena, Etxalarren, uztailaren 20an, 79 urte.
Maritxu Iribarren Ibarrola, Urdazubikoa, uztailaren 23an, 81 urte.

AHORRO-BERRI

janaridenda

Legia 4 • BERA

*Igande
goizetan
irekia*

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •

Dokumentazioak

Bezitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60

Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo (Bergara auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**

Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**

Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • **ELIZONDO**

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

A G E N T Z I A

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bitzita aseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

BEHARREZKO

TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta	
Urgentziak.....	112/088
Osasun Zentruak	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe.....	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza.....	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea....	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua.....	246750
Virgen del Camino	
Erresidentzia.....	109400
Gurutze Gorria.....	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea.....	614600
Gipuzkoako ospitalea....	460299
Erresidentzia.....	453800
Anbulatorioak	
Irun.....	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz.....	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak).....	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Doneztebe.....	450475
Elizondo.....	580924
Lesaka.....	637404
Suhiltzaileak	
Ornoz-Mugairi.....	592255
Garraioak	
Bidasotarra.....	631150
Baztanesa.....	580129
Leitzaran.....	515018
Aberiak:	
Iberdrola.....	450335 / 450336



Nafarroako Jubilatu eta pentsionista guztiek bigarren urtez antolatu den lehiaketa honetan parte hartu ahal izanen dute Artxiboa

Kultur lehiaketa antolatu da adineko jendeari zuzendua

Nafarroako jubilatu eta pentsionistek parte har dezakete pintura, eskultura eta argazkilaritza lehiaketetan

Iruñeko hirugarren adineko zenbait elkarrek 'Caja Rural' pintura-argazkilaritza txapelketaren bigarren edizioa antolatu dute. Nafarroan bizi diren jubilatu edota pentsionistek parte hartzen ahal dute. Pertsona bakoitzak hiru arloetan aurkez dezake bere lana, beti ere originalak eta bertze txapelketan sarituak suertatu ez ba-

dira. Lanak azaroaren 15a baino lehen ailegatu behar dira helbide honetara: *Asociación de clubs de Jubilados/ Centro Cultural Navarresa/Ref: Concursos Caja Rural / Navarra, 31/31001 IRUÑEA*

SARIAK

Arlo bakoitzean horrelako sariak banatuko dira:

Lehen saria: 40.000 pezeta, plaka oroigarria

eta Xabierreko Gazteluko erreproduktzioa. 1.ko akzesita: 25.000 pezeta eta plaka. 2. akzesita: 10.000 pezeta eta plaka.

Informazio gehiago eskuratzeko deitu eskualdeko Oinarrizko Gizarte zerbitzuetara: Baztan (580006, Elena), Malerreka (451746, Begoña) edo Bortziririk (635036, Itziar), baita 212575 telefonora ere.

Mendien esplotaziorako plan teknikoa burutuko da Bidasoaldean

Nafarroako Gobernua 3,2 milioi pezeta erabiliko du Berako Gartzezuria eta Nabasturen, Arantzako Ixkibo, Lesakako Urraba, Baldrun I, II eta III eta Bagobakarria eta Etxalarko Egilun mendietako ustiaketa edo esplotazio planak burutu ahal izateko.

Guztira, proiektuaren aurrekontua 6,6 milioi pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak kopuru honen erdia suposatzen du. Dirutza hau aurtengo eta datorren urteko aurrekontuetatik aterako da.

Lanen helburua mendi hauen bideak hobetzea da, ondotik sasiak errexago kendu ahal izateko. Honen batera, basoetan sortzen diren suteen kontrako lanak errexago burutu ahal izanen dira eta gaur egun dauden pistak garbituko dira.



LESAKA

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

Lizarrak laugarren txapela jantzi du Nafarroako Herriarteko pilota txapelketan

- ✕ Goizuetarrek ezin izan zieten aurre egin eta finaleko lau partiduetan galdu zituzten
- ✕ Halere, garaipen gehien lortu duen herria izaten segitzen du, sei txapelekin

Lizarrak bere laugarren txapela jantzi zuen –bigarrena segidan, joan den urtean Txarutari irabazi ondotik– Nafarroako Herriarteko edo Interpueblos txapelketan. Uztailaren 13an Iruñeko Labrit pilotalekuan jokaturako finalean Goizuetako taldeak ezin izan zuen partidu bakar bat ere irabazi.

Halere, pilotari goizuetar batek adierazi zuenez, “*gufinalera al-legatzearekin txapel-dun sentitzen gara. Herri tiki bat gara eta etxeko pilotariekin Lizarraldeko selekzio-aren kontra jokatu dugu*”.

PARTIDUAK BANAN BANA

Finaleko partiduei dagokionez, alebin mailan, Lizarrako Martinez eta Queralt-ek 18-7 irabazi zieten Makazaga eta Loiarre goizuetarrei, ordu erdi eskasean.

Infantiletan, ordea, partidu ikusgarria eta berdindua eskaini zuten Goizuetako Goia eta Loiarrek eta Lizarrako Martinez eta Zudairek. Hauek 15-7 aurretik jarri baziren ere, goizuetarrek 15era eta 17ra berdindu zuten, baina azken tantoa lizarratarren alde erori zen (18-17). Hauxe izan zitekeen finaleko giltzarria, goizuetarrek irabaziz gero emozioa bederen mantenduko baitzen Labriteko harmailetan.



Jubeniletako partiduan ere Lizarrako Ruiz eta Arrastia gogor hasi ziren eta 19-3 jarri ziren aurretik. Olaizola eta Apezetxeak 2-13ko partziala egin bazuten ere, 21-16ra hurbilduz, azken tantua eta, honenbestez, txapela ziurtatu zuten Lizarraldekoek (22-16).

Haundien partidua aritzerakoan dena erabakia bazegoen ere, partidu gogorra jokatu zuten Lizarrako Yaniz eta Auxkin eta Joxeanton eta Juantxo Apeztxea goizuetarrek. Azkenean, hau ere, galdu egin zuten goizuetarrek (22-18).

SEI TXAPEL JANTZI DITU GOIZUETAK

Aurtengoa ezin izan badu ere, Goizuetak sei txapel jantziak ditu jokaturako 27 txapelke-



Duela lau urte Lesakaren kontra lortu zuen azken txapela Goizuetak. Aurten meritu haundiko bigarren postua eskuratu du, kontuan hartzen badugu herriko pilotariekin soilik aritzen dela Lizarra edo Oberena bezalako selekzioen kontra.

Artxiboa

tetan, azkena 1992an Lesakaren kontra. Txapel gehienak, herriarteko lehia izaten zenean bururatu zituen.

Gaur egun, zaila da Goizuetako bezalako herri tiki batentzat Lizarra, Oberena edo urrutirago joan gabe, Txaruta

bezalako herri ezberdinetako selekzioen kontra irabaztea. Halere, lehena segitzen du txapelen palmaresan.

Uda garaian sartuta, igeriketa txapelketak nonahi burutuko dira

Abuztuaren 24an jokatuko dira Iruñean Nafarroako Igeriketa Jokoetako finalak, alebin eta infantil mailetan

Abuztuaren 5ean, goizeko 11etan jokatuko da Berako X. Igeriketa txapelketa, Gure Txokoa elkarteak Berako Udalaren laguntzaz antolatua. Txapelketa, adin guzietako igerilariek zabaldua egonen da.

Abuztuaren 19an, goizeko 11etatik aitzinera burutuko da Elizondoko igerilekuan eskualdeko igeriketa txapelketa. Bertan, Baztan, Leitzaldea, Malerreka eta Bortzietako igerilari alebin (1986-87an jaioak) eta

infantilek (1984-85an jaioak) parte hartu ahal izanen dute. Txapelketa hau, abuztuaren 24an, goizeko 10,30etatik aitzinera Iruñean jokatuko diren Nafarroako Igeriketa Jokoen finalerara sailkatzeko baliagarria izanen da.

Abuztuaren 31n, azkenik, goizeko 11etatik aitzinera Berako VI. Gure Txokoa txapelketa burutuko da, alebin (86-87), infantil (84-85), kadete (82-83) eta junior (80-81) mailako neska-mutikoei zabaldua.



Eskualdeko igerilari ttikienek izanen dute aukerarik uda honetan beraien prestakuntza eta indarra erakusteko, hainbat proba izanen baitira eskualdeko piszinetan

Argazkia: Artxiboa

Beintza-Labaiengo bestetan Idoia Mariezkurrena omenduko dute

Espainiako txapeldun izan da jabalina jaurtiketan

Sortzez donostiarra bada ere, zortzi urte zituenetik Labaiengo Sarasea etxean bizi den Idoia Mariezkurrena atleta bikainak bere herritarren omenaldia jasoko du abuztuaren 6an, Beintza-Labaiengo besten barrenean.

Omenaldia eguerdiko 1etan hasiko da, dantzarien emanaldiarekin. Ondoren, Andoni Egaña eta Jon Sarasua bertsolariak arituko dira. Akitzeko herri bazkaria izanen da.

Pamplona Atletico taldearen izenean ari da azken urteotan Idoia Mariezkurrena eta Nafarroako Gobernuak babestutako Larrabide erresidentzian entrenatzen du. Aurtengoan, Espainiako ja-



Idoia Mariezkurrena

balina jaurtiketa txapelketa irabazi berria du. Joan den urtean, berriz, Nafarroako emakume kirolari onena izendatu zuten.



BÁZTAN

ALTZARIAK

zurgindegia

121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 • IRURITA

Ederra kanpotik
Zoragarria barnetik

Merkatuko ohatzerik
haundienak egiten ditugu



AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

BERA

► **Abuztuaren 2tik 6ra** Xehetasunak aparteko gehigarrian.

LEITZA

► **Abuztuaren 10-etik 15era** Xehetasunak gehigarrian.

SUNBILLA

► **Abuztuaren xtik xxra** Xehetasunak 18. gehigarrian.

BEINTZA-LABAIEN

► **Abuztuaren 2tik 6ra** Xehetasunak 19. orrialdean.

GAZTELU

► **Abuztuaren xxtik xxra.** Xehetasunak 20. orrialdean.

ZIGA

► **Abuztuaren xxtik xxra.** Xehetasunak 25. orrialdean.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Uztailaren 8tik 30a artio** Baztango Artisauen eskulanak erakutsiko dira Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.

► **Uztailaren 24tik 30a artio** 'Oroimenerako irudiak, Elizondo 1916-96' erakusketak zabalduko da.

Antolatzailea Elizondoko herria.
► **Uztail eta abuztu**an Tomas Sobrinoren pinturak ikusgai Jaime Urrutia Karrikako aretoan.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Legatz betea barazki eta gaubekin

Osagaiak

• 1,5 kiloko legatza • **Betegarriarendako:** tipula, porrua eta azenario bat. • **Saldarako:** 25 gr. gurin, ardo xuri pittin bat, irin pixka bat, arrain salda, 1 dl. esnegain, tomate ondu bat dadotan puxkatua.

Prestatzeko modua

Legatza ireki eta hezurra eta larrua kendu. Xerretan moztu eta piper hautsa eta gatza bota. Hezurra, burua, tipula, porrua eta

perrexilarekin salda egin, eta egina dagoenean, iragazkitik pasatu.

Tipula, porrua eta azenarioa juliana eraraxe-hetu eta zartagi batean gorritzen jarri su ez-tian. Gorritu direnean ganbak gehitu, eta nahaskiarekin, legatz xerrak bete-ko ditugu 'rollitoak' eginez. Aparteko ontzian gurina urtu eta 'rollitoak' jarri gorritzen. Ondotik



Castor ARRESEIGOR

BASAKABI
Jatetxekoa
• LEITZA •

irina, ardo xuria, arrain salda, esne gaina eta tomate puxkak erantsi. Bost minutu suan utzi eta egina dagoenean perrexila bota gaintetik. On egin!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.300 pzta.
• **Zerri gizona** (95-100): 230pzta/kilo
• **Zerramak:** 120-130 pzt./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak:**
• **Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal
Extra 540
1.koa 510
2.koa 480

• **Urruxak:** Pzta/kg. Kanal
Extra 550
1.koa 520
2.koa 480
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urru-xentzako.
• **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruak 18.000 eta idixkoak 27.000 Pzta.
Mestizoak: urruak 27.000 eta idixkoak 35.000 Pzta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 360 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 420 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza
• **Bertako sagarrondoak** 950.
• **Udareondoak** 950 pzta.
• **Gereziondoak** 1.050 pzta.
• **Aranondoak** 1.050 pzta.
• **Muxika** 880 pzta.
• **Urritza** 880 pzta



❖ LANDAREAK ❖

• **Porruak** zientoa 400.
• **Tipulak** zientoa 800.

koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK


Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, ☎ 63 05 98
BERA

Tai-chi-chuan ikastaroa abuztuan Elizondon



Gorputzaren eta buruaren tentsioa askatzea eta lasaitzea da *Tai-Chi-Chuanaren* helburu nagusia

Tai Chi Chuana, milaka urte dituen artea da, Txinan sortua eta Taoismoaren ja-kindurian oinarritua. Bere helburu nagusia gorputzaren eta buruaren (stress) tentsioa askatu eta lasaitzea da eta gure izaera jokuari, plazerrari eta gizaki bezela egoki eta armoniaz hazteari zabaltzea.

Arte martzial guztiek, eta *Tai-Chi-Chuanak* batez ere, munduarekin harremanatzeko modu bat erakusten digu, jarrera itxiak, harrokeria, haundikeria eta biktimismoa... alde batera utzi eta gaingiduz.

Norberaren adorea haunditzea, sortzeko kemena, ausardia, "hemen eta orain" bizitzea, arriskua eta ardurak bereganatzea, mina ez ematearen abilitadea garatzea eta norbera hazteko 'bertzeak' duen ezinbertzeko garrantzia etengabe onartzea dira *Tai-Chi-Chuan* artearen egiazko bihotza.

Bakoitzak begirada bere barnera itzultzen badu, borrokarik garrantzitsuena be-

re barnean dagoena dela azalduko zaio, bere barnean txuriak eta beltzak daukela, argiak eta itzalak, maitasuna eta gorrotoa...

Bertzearen onartzea, ezberdina denarekiko tolerantzia da osoagoa egiten gaituena eta gure egiazko dimetsio espirituala itzul-

tzen diguna.

IKASTAROA ELIZONDON ABUZTUAN

Elizondon abuztuan egingen den ikastarorako izena emateko deitu 580702 telefonora.

JAVIER BELZUNEGI

AGENDA EGUNEZ EGUN

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Abuztuaren 2tik 24ra** Susana Zaldivar margolariaren lanak ikusgai Arizkunenea Kultur Etxean.

ERAKUSKETAK

BERTIZ

► **Uztailaren 6tik abuztuaren 25era** Bertizko Natur Parkeko gurditegian eta jauregiko erakusketa aretoan 'Zientzia, teknologia eta gizarte aldeketari buruzko erakusketa.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Uztailaren 29tik abuztuaren 4ra** Etxalar, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

► **Abuztuaren 5etik 11ra** Arantza, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► **Abuztuaren 12tik 18ra** Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

ARIN

ZERBITZUAK

Zure autoa aseguratuta nahi duzue? Edo zure etxea?

ZERBITZUAK

Erretiroak kezkatzen zaitu? Saldu nahi dituzten aseguruak

eta zuk dituzun beharrak bat datoz?

Behar baino gehiago ari zara ordaintzen?

Galdera hauei erantzuteko zatoz profesionalen eskuetara

Parrokia karrika, 21 • Tfnoa.: 948 - 45 02 66 • DONEZTEBE

ETXEBIZITZAK

Borda edo baserria erosi-ko nuke Baztan-Bidasoan. ☎ 989.583894. Juantxo.

BAZTAN. Baserria salgai. Deitu gauetan. Jon. ☎ 948.721112.

ZUBIETA. Borda salgai. Prezio negoziagarria. ☎ 234830.

ITUREN. Borda salgai 3.000 m²ko eremuarekin. Bide ona. ☎ 234830.

BARAIBAR. Baserria salgai, 2.500 m²ko lur eremuarekin. Prezioa negoziagarri. ☎ 451518.

DENETARIK

Bi giltza bere giltzariarekin batera agertu dira Etxalarko Axolorronean. ☎ 635166.

Berako neska batek lagun bat behar du Iruñean pisua osatzeko. ☎ 630694. Beatriz eguerditan.

BARAÑAIN. Neska bat behar da pisua osatzeko. ☎ 637447.

LESAKA. Lokala salgai, 58m²koa. Arras merke. ☎ 637453.

Eskopeta superpusta salgai, 4 txokerekin, arras modernoa eta egoera onean. ☎ 637872.

Franchi eskopeta salgai, gazezkoa. Oso zorrotza eta egoera onean. ☎ 637872.

Iruñean lau pertsona behar dira pisu eder bat osatzeko. UPNAtik 15 minutu-
ra. ☎ 592026. Arratsaldetan.

Iruñean neska bat behar da pisua osatzeko irailetik aurrera. Gela konpartitua. Langilea bada hobe. ☎ 631442 edo 615054.

Elizondon pisu konpartitu bateko gela bat alokatuko nuke irailetik aurrera. ☎ 510071 (gauetan, Izaskun).

DONEZTEBE. 90 m²ko bagera alokairuan emanen nu-

ke, borts urterako (luzagarrria). Prestatua. 30.000 Pta hilean. ☎ 234830.

BERA. 60 m²ko bagera salgai, ura eta argiarekin Burgi Plazan. ☎ 631137-630941.

DONEZTEBE. 80 m²ko bagera salgai, 100 m²ko baratzearekin. ☎ 234830.

150 liburu inguru sagai Beran. ☎ 631088.

ETBko 'Txiskola' saioan ateratzeko nafarrak behar dira. Izenak abuztuan eman behar dira, irailetik aurrera grabatzen hasteko. ☎ 943-217543 edo 219322 (Leire).

Kolore argiko bi ateko armaria eta bere gau-mahaitxoak, berri-berriak, 25.000 pezeta ingurutan salduko nituzke. ☎ 631338.

Argazki makina ttiki bat, uztailaren 20an Leurtzako urtegi inguruetan galdu dugu. ☎ 637462 (eguerdi edo gauetan).

AZIENDAK

Dalmata arrazako zakurra salgai. 4 hilabete ditu. Prezio negoziagarria. ☎ 631430 edo 411714 (Arantxa).

Ahari bat salgai, mutur gorria eta bi urtekoa. Eguerdian eta gauetan deitu. ☎ 610638.

Dogo alemandar arrazako zakurrak salgai. Urdinak. Pedigree ezin hobea, lehia-
ketarako zakurrak. ☎ 630381 (Bera).

Mendiko hiru behi salgai, beraien txekorrek. ☎ 510167.

ALBAITERITZA KLINIKA
Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
☎ 627660 LESAKA



Txakurkume bat erregalatu nuke Leitza. Hila-
betekoa, gorria. Ama arratoi txakurra eta aita ardi txakurra. ☎ 397039.

Ardi zakur bat erosiko nuke, 6 edo 7 hilabetekoa. ☎ 387091.

Bi arratoi zakurkume erregalatu nitzuke. ☎ 610686. Leitza.

IBILGAILUAK

Audi  **SAMPI ARAGON**

Bi Mitsubishi labor, luze bat 7 plazakoa, Toyota luzea eta Niva bat salgai, egoera ezin hobean..
☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

Ford Orion 1.6 Diesela salgai. NA-O.. ☎ 948-510460 943-683067.

Rieju MR80 motoa salgai, egoera onean. ☎ 635196.

Renault 4 16 salgai, NA-P matrikuladuna, egoera onean. ITV pasa berria. ☎ 393180 (8etatik 10etara).

Neska batek klase parti-

kularrak emanen lituzke Baztaninguruan. ☎ 585078 Garazi.

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Suzukiak: luzea eta laburra, Land Rover Ligeru, Laburra eta Luzea, Ford Escort eta Opel Corsa. Tapizeriak garbitzen ditugu.

LANA

Mutil bat eskaintzen da herrietako bestetan ostatuan lan egiteko. ☎ 637911 Jose M^a.

Neska batek etxeko lanak egin edo hurrak zainduko lituzke. ☎ 637749. Gaez..

Etxeko lanak egiteko eta hurrak zaintzeko, pertsona arduratsua behar dut. Hobe euskalduna bada. ☎ 631422.

Klaseak emanen nituzke udan. Euskara, maila guztietan, solfeo, matematika, fisika, kimika eta elektronika. Iruritan edo Oronozen. ☎ 592296 edo 452188.

Hurrak zaintzeko emakume euskaldun eta esperientzia duen baten bila gabiltza. ☎ 631185.

AGURRAK

Lesakako Igor Porturi: niri gustatzen zaidan neska-
rekin ligatu zinen Sanfermi-

netan, baina jakin ezazu neska maja harrapatu duzula. Zurekin ikaskidea.

Berako J.M.ri, zurekin atera nahi dut. I.A.

Berako Ainhoa Goñiri: zorionak zure urtebetze egunean. Joanes eta Maia.

Saldiasako "Pinnochia"ri zorionak eta bost muxu haundi zure 18. urtebetetzeagatik. Zure lagunak, Pollo, Morera, Burundi, Pintto eta Alondra. Iturengo bestetan txanpain botella bana.

Elgorriagako Xabier eta Eloy eta **Doneztebeko** Hectorreri: arras majuak zaretze eta horrela segitzea espero dugu. Gainera oso onak zaudete eta etor zaitzete gehiago Doneztebera. Zuek dakizuen Doneztebeko hiru neska. Muxu haundi bat.

Urrotzko Anari: ez pentsa zure ezpainak politik direla, basurdearenak baino haundiagoak dira eta. Ez pentsa ezpain horiekin ligatu behar duzula.

Legasako Iker eta Joanandako zorionak urtebetetze egunean (uztailak 15 eta uztailak 22). Osaba Josu Alcalá-Mecotik.

Uitziko Mikelentzat: Berroetako bestetan hagitzen ongi pasatu nuen zurekin, eta berriz ere elkarrekin egoteko irrikitan nago. Muxu bat, Igantziko neskatxa.

Urdazubiko Alizia eta Juan Mari: zorionak aunitz zuen ezkontzarengandik (abuztuak 3) eta besta eginez elkarrekin; muxuak, zuen lagunak.

Igantziako Kunderi: eskerrik asko hain urrutitik gutaz oroitzeagatik. Ea noiz ikusten dugun elkar. Besarkada bat zure ahizpa eta Mañoloren partez.

 **Publitel** Promozio Bereziak

- Egutegiak
- Buzoiratzeak

Gure asesorea deitu eta eskatu aurrekontua
Zure ideari forma ematen dugu iduri ona eman dezazun

Eztegara Pasealekua, 26 - 2. • Tfonoa.: (948) 63 12 83 • BERA (Nafarroa)

ttipi-ttapa
Gida Komertziala 96



Elektrizista baten bila zabilta? Gida honetan topatuko dituzu inguruko guztien telefonoak.

**MUEBLES
AMETS**
mobleak orokorrean
BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

Sekulako eskeintza
Besaulkiak prezio eta
kalidade hoberenean



UZTAILEAN, ABUZTUAN ETA IRAILEAN,
LARUNBAT ARRATSALDETAN ITXITA



SAMPI ARAGON



Golf



Caddy

25 urte zuen zerbitzura

TXAPA eta PINTURA
MEKANIKA

ELEKTRIZIDADEA
GARBITZAILE AUTOMATIKOA

Grua zerbitzua 24 ordutan

Leitzako errepidea • ☎ 450354 / 450759 • **DONEZTEBE**



BESTA ZORIONTSUAK !!